

Tragsa Taldearen Kode Etikoa



Aurkibidea

PRESIDENTEAREN ADIERAZPENA.....	5
I. TITULUA. HELBURUA ETA APLIKAZIO-EREMUA	7
II. TITULUA. JOKABIDE-ARAUAK	9
I. kapitulua. Arau orokorrak.....	9
II. kapitulua. Gizarte-arauak	10
III. kapitulua. Lan-arauak	12
IV. kapitulua. Ingurumenaren arloko arauak	16
V. kapitulua. Arau ekonomikoak	17
VI. kapitulua. Komunikazio estrategikoko arauak	19
VII. kapitulua. Gobernu, Enpresa Erantzukizun eta Arrisku Penalen Prebentzioko Batzordea	

PRESIDENTEAREN ADIERAZPENA

Tragsa Taldeak, gardentasunaren, gobernu korporatibo onaren, enpresako etikaren eta araudia betetzeko kulturaren alde hartua duen konpromisoaren barruan, administrazio publikoen bitarteko propio pertsonifikatua den heinean, negozio-eredua garatu du azken urteotan, legeak ezarritakoa betetzean, kalitateko zerbitzu publikoan, zuzentasunean, profesionaltasunean eta enpresen arloko delituekiko zero tolerantzian oinarritutakoa; hala, sektore publikoaren lehen postuan kokatu da arlo horretan.

Enpresaren Gizarte Erantzukizuneko politiken barruan, arrisku penalen prebentzioak garrantzia handia dauka, eta beti egokitu dugu eredua legedian eta antolakuntzan egindako aldaketetara. Hori dela eta, 2012an lehen Kode Etikoa onartu genuen, 2015.ean aldatu zena, eta orain berriro aldatuko duguna; izan ere, arrisku penalen prebentzioaren eredua osatzen duten dokumentu guztiak egokitu behar dira errealitate berrietara eta erakundeko araudi aldaketetara. Funtsean, eguneratze honekin Taldearen Gobernantza hobetu nahi du, enpresako jarduera eta kudeaketa lanak bereiziz. Goi Zuzendaritza arduratzen da horretaz, eta Administrazio Kontseiluak edo harekin osatutako organoek legea betetzen dela kontrolatzen dute, dagokion baimenarekin, baina Taldearen eguneroko jarduerarekin lotura zuzenik izan gabe.

Arestian aipatutakoagatik, Kode honek zenbait printzipio eta jokabide gidalerro ezartzen ditu, Taldeko profesional guztiek beren zereginetan portaera etiko eta arduratsua dutela bermatzeko. Era berean, Talde osoaren jarduna, eta zehazki TRAGSArena eta bere filialena, arautu behar duten balioak eta jardunbide egokiak zehazten dira, eta enpresa horrekin zuzenean zein zeharka lotura duten pertsonen jokabidea nolakoa izan behar den, beren eginkizunei eta lan-harremanei dagokienez; eta hori guztia Enpresaren Gizarte Erantzukizuna (EGE) aintzat hartuz, etikaren ikuspuntutik arduratsua ez den edo indarrean dagoen legedia betetzen ez duen jokabide oro baztertuz.

Kode honetan enpresak hartutako ikuspegi estrategikoarekin, EGEaren helburuak bildu nahi ditugu, hau da, enpresaren inguruan ikuspuntu solidarioagoa izatea maila guztietan – elkartasun etikoa, soziala, ingurumenekoa, ekonomikoa–, eta soilik ekonomikoak ez diren beste helburu horietan estrategiak txertatzea. Halaber, Taldeko langileak eta interes-taldeak kontzientziatu nahi ditu jokabide egokiaren garrantziaz, alegia, indarrean den legedia errespetatu ez ezik, gizarte garden eta zuzena eraikitzen laguntzea; horretarako, jokabide mekanismo zehatzak ezarri dira arazoei edo portaera desegokiei aurre egiteko.

Zentzu horretan, ezin dugu ahaztu Tragsa Taldeko sozietateak Estatuko Administrazio Orokorraren, Autonomia Erkidegoen, Ceuta eta Melilla Hiri Autonomoen, uharteetako Cabildo

eta Kontseiluen, Euskadiko Foru Aldundien, Probintziako Diputazioen eta horietako edozeinen menpe egonda botere esleitzaille izaera duten sektore publikoko erakundeen bitarteko propio instrumentalak eta zerbitzu teknikoak direla, baldin eta 32. artikuluko 2. ataleko d) hizkiko 2. puntuan eta artikuluko bereko 4 ataleko a) eta b) hizkietan zehaztutako baldintzak betetzen badira. Hala, Espainiako sektore publikoko enpresa izanik, bere helburua da bere jarduerarekin aurrera jarraitzea, bere hastapenetan (duela berrogei urte baino gehiago) eskaintzen zituen kalitate eta jaidura berberekin; eta, horrez gain, erreferentea izan nahi du jardunbide etikoaren arloan, nazio mailan ez ezik, nazioartean ere.

Tragsa Taldeak, bere jarduera-esparrua dela eta, ondo ezagutzen ditu zeintzuk diren egun dauden ingurumen eta gizarte arazoak, bai gure mugen barruan bai horietatik harago; horrek enpresa kudeatzeko ikuspuntu berria eragin du, modu bateratu eta osoagoan, sormena eta berrikuntza aintzat hartuz. Horri esker, enpresaren balioek eta kulturak indarra hartu dute, estrategia eta ospea sendoagoak dira, eta enpresak modu arduratsuan jokatzen du gizartean.

Laburbilduz, Tragsa Taldearen helburua da EGEa, eta horretarako "Kode Etikoa" deritzona erabiltzen du. Horren bitartez, bizi-kalitatea hobetzea, Administrazioarekiko harremana sendotzea eta baliabideak zentzuz erabiltzea xede duten neurriak hartzen ditu. Hala, ekoizpen prozesu jasangarriak txertatu ditu, ingurumena ez kaltetzeko eta natura babesteko.

I. TITULUA. HELBURUA ETA APLIKAZIO-EREMUA

1. artikulua. Xedea

Kode honen helburua da gizarte, etika eta ingurumen kezkak enpresaren politikan jasotzea; horretarako, orain arte indarrean egon den araudi soziala eta ingurumenekoa hobetzen ditu, lotura zuzena baitu enpresaren jarduerarekin, enpresaren eraginkortasuna eta kalitatea handitze aldera.

Kode Etiko honek Taldearen xedea, ikuspegia eta balioak zehazten ditu, eta Taldearekin harremana duten profesionalek ere aintzat hartu behar dute, enpresa-giro konplexu eta aldakor batean.

Kode Etikoan jasotzen dira Taldeak enpresa etikarekin eta gardentasunarekin hartua duen konpromisoa, jarduera-esparru guztietan, eta zenbait printzipio eta gidalerro ezartzen dira, Taldeko profesional guztien jokabidea (beren eginkizunen baitan) etikoa eta arduratsua dela bermatzeko.

Tragsa Taldeak arreta egokiaren printzipioa aplikatzen du akzio penalekin zein bestelako arau-hausteeekin lotura duten jokabide desegokiak prebenitzeko, hautemateko eta konpontzeko; gainera, konpromisoa hartzen du, besteak beste, arlo horretako arriskuak aldian-aldian aztertzeko, langileek arriskuak ezagutzen dituztela ziurtatzeko, Kodea betearazteko eta enpresa barruan sortzen diren arazoak azkar konpontzeko komunikazio-kanal bat ezartzeko. Enpresak prozedura egokiak txertatu ditu horrelako arazoei aurre egiteko.

Kode Etiko hau nahitaez betetzekoa da. Tragsa Taldeko langile guztiek ezagutu eta bete behar dute Kode Etikoa; eta haren kontrako jokabiderik edo arau-hausterik hautemanez gero, enpresari jakinarazi behar diote, helburu horrekin enpresak gaitu duen kanalaren bidez. Horiek horrela, enpresak prozedura jakin bat ezarri du, langileek enpresan hautematen dituzten jokabide okerrak jakinaraz ditzaten modu anonimoan. Halaber, organo agindu emaileek, hornitzaileek eta kolaboratzaileek Kodea bete behar dute beren zerbitzua eman ahal izateko.

2. artikulua. Tragsa Taldearen jarduera, bitarteko propioa eta zerbitzu teknikoa

Tragsa Taldea, bere araubide juridikoan definituta dauden helburuekin bat, bitarteko propioa den entitatearen batek eskatutako ekintzak egiten ditu; eta profesionaltasun osoz jarduten da, interes publikoaren kalitatea eta poztasuna maila gorenera eramateko.

Horrez gain, bitarteko propioa izanik, Taldea osatzen duten sozietateen helburu nagusia da entitateen beharrei zorrotasun- eta kalitate-maila altuarekin erantzutea, eta hori transmititu zaie langile guztiei; hortaz, beren jardun profesionalean bikaintasuna eskatzen zaie.

Horretarako, Tragsa Taldeak ahalegin berezia egiten du langileen ezagutza teknikoak egunean mantentzeko; hala, aurrea hartu ahal diete Tragsa Taldeari eskaerak egiten dizkieten entitateen interes eta beharrei, herri administrazioen edo horien menpeko sektore publikoko entitateen bitarteko propioa izanik (betiere botere esleitzaileraren izaz), eta erreferentia izan daiteke bere jardueraren esparruan.

3. artikulua. Aplikazio-eremua

Kode Etikoa Taldeko profesional guztiei aplikatzen zaie, beren hierarkia maila eta kokaleku geografikoa edozein direla ere; horiek horrela, Taldeko profesionaltzat hartzen dira Taldea osatzen duten entitate guztietako langileak eta kudeaketa, administrazio nahiz zuzendaritza organoetako kideak, lurralde nazionalean egon zein ez.

Gainera, beste herrialde batean egoteagatik langileei beste Jokabide Kode batzuk aplikatzekoak badira, haiek ere onartu eta bete beharko dituzte. Hala ere, beste barne araudi horietan ezarritako obligazioak Kode Etiko honetan deskribatutakoak baino zorrotzagoak badira, lehentasuna emango zaio hemen ezarritakoari.

4. artikulua. Ondoreak

Kode Etiko honekin, hartzaile guztiei jakinarazi nahi zaie nola jokatu behar duten, eta zuzendari eta aholkulariek enpresaren kultura etikoa zabaldu nahi dute, etikoki zalantzarik izan daitekeen portaerarik egon ez dadin; eta, halakorik gertatuko balitz, langileek jakingo dute nola jakinarazi behar dizkieten organo arduradunei, gertatutakoa ikertzeko eta hemen jasotako balioen aurkako jarrera oro ezabatzeko.

II. TITULUA. JOKABIDE-ARAUAK

I. kapitulua. Arau orokorrak

5. artikulua. Araudia betetzea

Tragsa Taldeko langile guztiek bete behar dituzte indarrean dauden arauak, beren lana edozein lekutan egiten dutela ere, eta erabilerak eta ohiturak errespetatu behar dituzte, bai gure lurraldean bai atzerrian.

Era berean, Taldeak hirugarrenekin hartutako konpromisoak errespetatu behar dira, bai gure lurraldean bai atzerrian.

Taldeko zuzendari guztiek jakin behar dute zeintzuk diren beren lan-arloari eta zerbitzuei eragiten dieten legeak, eta ziurtatu behar dute langileek lege eta araudi horiek betetzen dituztela; gainera, langileek informazio eta prestakuntza egokia jasotzen dutela bermatu behar dute, obligazio horiek ondo ulertzen eta betetzen dituztela ziurtatzeko.

Tragsa Taldeak indarrean dagoen legeriaren aurkako jokabide oro baztertzen du; beraz, barne prozedura eta mekanismo egokiak ditu arriskuak txikitzeko, adibidez, delituak saihesteko.

Taldeak ebazpen judizialak eta administratiboak onartu eta beteko ditu; hala ere, erabaki edo ebazpen horiek zuzenbidearen arabekoak ez direla uste badu eta bere interesen aurkakoak badira, eskubidea izango du auzitegian errekurtsua jartzeko.

Tragsa Taldeak, datuak babeste aldera, barne politikak eta neurriak hartzeko konpromisoa hartu du, diseinuan eta modu lehenetsian, informazioaren segurtasuna oinarrian jarrita; hori dela eta, langile, bezero, hornitzaile eta gainerako interesdunen datuak egoki tratatzen ditu, eskuragarritasuna, osotasuna, konfidentzialtasuna, trazabilitatea et egiazkotasuna bermatuta. Hemen sartzen dira, halaber, baimenik gabeko edo legez kanpoko tratamenduen aurkako babesa eta datuak nahi gabe ez galtzeko, ezabatzeko edo kaltetzeko neurriak; horretarako, neurri teknikoak edo antolakuntzakoak aplikatzen ditu.

6. artikulua. Lan-jokabide zuzena

Taldeko langileen jokabidea zuzena izan behar da, hau da, zuzentasunez jokatu behar dute, modu arduratsu, produktibo, eraginkor eta leialean, eta konfidentzialtasunaren printzipioa errespetatu. Hori dena Taldearen interesekin eta Kode honetan ezarritakoarekin bat; hortaz, beren jokabideak lau baldintza bete behar ditu: (i) etikaren ikuspuntutik egokia izatea; (ii)

legeetan ezarritakoarekin bat etortzea; (iii) bai Sozietatearen bai Taldearen onerako izatea; eta (iv) langilea prest egotea egindako horren gaineko ardura hartzeko.

7. artikulua. Langileek ondo babestea enpresak beren esku jarritako baliabide materialak

Tragsa Taldeak langileen esku jartzen ditu beren lana egiteko behar dituzten baliabideak.

Langileek Taldearen baliabideak babestu eta modu arduratsuan erabili behar dituzte, galdu edo apurtu ez daitezzen, eta inork lapurtu edo modu desegokian erabil ez ditzan, horrek Taldearen interesak kaltetu baititzake.

Taldearen ondasunak langileen eginkizunetarako erabiliko dira soilik; beraz, ezin daitezke erabil norberaren edo Taldearekin loturarik ez duen beste inoren onurarako.

Taldeak gailu digitalak erabiltzeko irizpideak ezarriko ditu, betiere intimitatea eta datuen babesa errespetatuz, gizarte-erabilerekin eta Konstituzioan zein beste legeetan aitortutako eskubideekin bat. Aplikagarriak diren eskubide digitalak bermatuko dira.

Zehazki, sistema informatikoei dagokienez, langileek ezingo dituzte erabili enpresaren jabetzako gailuak legez kanpoko programa edo aplikazioak instalatzeko, ez eta Taldearen irudia eta ospea kaltetu dezaketenak ere. Era berean, ezingo dituzte erabili gailuok iraingarriak edo legearen aurkakoak izan daitezkeen edukiak ikusteko, deskargatzeko edo partekatzeko, ez eta beste programa informatiko edo dokumentu elektronikorik kaltetu dezaketen, edota sistema informatikoren baten funtzionamendu egokia oztopa dezaketen edukiak ere.

II. kapitulua. Gizarte-arauak

8. artikulua. Tragsa Taldearen iritzi ona

Taldeak bere ospe ona babestuko du; horretarako, Tragsa Taldeari —herri administrazioen eta horietako edozeinen menpe egonda botere esleitzaileraren duden sektore publikoko erakundeen bitarteko propioa izanik— eskaerak egiten dizkieten entitateek, haien hornitzaileek eta kanpoko profesionalek ospe hori kaltetzen ez dutela kontrolatuko du.

Horrez gain, Tragsa Taldeari —herri administrazioen eta horietako edozeinen menpe egonda botere esleitzaileraren duden sektore publikoko erakundeen bitarteko propioa izanik— eskaerak egiten dizkieten entitateek, hornitzaileek eta kanpoko profesionalek Taldearen izena

nola erabiltzen duten kontrolatuko du, Taldearen irudia eta nortasuna egoki mantentzen dela bermatzeko.

Taldeak ez du parte hartuko beste entitate edo profesionalak kaltetzeko jardueretan edo iruzkin negatiboetan; hala ere, bere interes legitimoak babestuko ditu.

9. artikulua. Giza eta lan eskubideen aldeko konpromisoa

Taldeak konpromisoa hartua du legedi nazionalen eta nazioarteko araudietan aitortutako giza eta lan eskubideekin.

Taldeak elkartzeko eta hitzarmen kolektiboak egiteko askatasuna errespetatzen du, eta zerbitzua ematen duen herrialdeko eskubide nazionalak ere bai; hala, jarduten den askotariko alorren arteko desberdintasunak baloratzeko konpromisoa hartu du, bere jarduera eta sozietatea bera aberasten baitute.

10. artikulua. Bazterkeriaren aurkako eta aukera berdintasunaren aldeko printzipioa

Taldeak arraza, nazionalitate, jatorri sozial, adin, sexu, egoera zibil, sexu-orientazio, ideologia, iritzi politiko, erlijio edo bestelako gai fisiko zein sozialengatiko bazterkeriarik eza bultzatzen du langileen artean, eta aukera-berdintasuna sustatzen du.

Taldeak emakume eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzen du pertsonak laneratzeko, prestakuntza emateko eta langileak mailaz igotzeko orduan, eta biei lan-baldintza berberak eskainiko dizkie.

Taldeak berriaz debekatzeko dituzten autoritate-abusuak eta jazarpen mota oro, fisikoa, psikologikoa zein morala izan; era berean, larderia zein etsaitasuneko giroa, edota giro iraingarria, eragin dezaketen jokabideak debekatzeko dituzte. Jazarpenik pairatu edo horrelakoren berri izanez gero, berehala jakinarazi beharko zaio Gobernu, Enpresa Erantzukizun eta Arrisku Penalen Prebentzioko Batzordeari, horrelakoak salatzearen bidez (buzonetico@tragsa.es), agiri honen VII. kapituluaren eta protokoloaren azalduko moduan,

11. artikulua. Informazioaren konfidentzialtasuna

Taldeak bere interesak babestu behar ditu darabilen informazioaren konfidentzialtasunari dagokionez; zentzu horretan, datu pertsonalak babesteko eskubidea erabat errespetatu behar du diseinutik, eta, aldi berean, konfidentzialtasun horren eta barne komunikazioaren arteko

oreka egokia bilatu eta mantendu behar du, Taldearen barruan integrazioa eta batasuna sustatzeko.

Hirugarrenen isilpeko informazioa erabiltzean, kontu handiz egingo da, informazio hori legea betez eta modu legitimoan eskuratu dela bermatuz, eta betiere konfidentzialtasuna zainduz.

Informazioaren konfidentzialtasuna mantendu egin beharko da langileak Taldean duen kargua utzi ondoren.

III. kapitulua. Lan-arauak

12. artikulua. Familia eta lan-bizitza bateragarri egitea

Taldeak langileen familia eta bizitza pertsonala errespetatzen ditu; horregatik, bateratzeko politikak sustatuko ditu, bi horien eta laneko erantzukizunen arteko oreka hobetze aldera.

13. artikulua. Intimitaterako eskubidea eta langileen datu pertsonalak babestea

Taldeak langileen intimitaterako eskubidea errespetatzen du, bereziki datu pertsonal, mediko eta ekonomikoei dagokienez. Hori dela eta, zilegi, leialtasunez eta gardentasunez erabiltzen ditu, eta aurrez ezarritako helburu legitimoetarako tratatzen ditu. Debekatuta dago hirugarrenen datu pertsonalak tratatzea edo lagatzea, interesdunak berariazko baimena eman duenean edo kontratuak, legeak, ebazpen judizial edo administratibo batek edota aplikagarria den bestelako lege-oinarriren batek hala eskatzen duenean izan ezik.

Taldeko Zuzendaritzak datu pertsonalen babesari buruzko legeak ezarritakoa beteko du langileei, enpresarekin lotura duten beste profesionalei eta gainerako interesdunei jakinarazpenak bidaltzean.

Datu pertsonalei dagokienez, datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko, transferitzeko eta datuei aurka egiteko eskubideak bermatuko dira, eta banakako erabakiak mugatuko dira; halaber, nahi izanez gero, erreklamazioa helarazi ahal izango zaio Datuak Babesteko Ordezkarari eta/edo Kontrol Agintaritzari.

14. artikulua. Laneko segurtasuna eta osasuna

Taldeak laneko segurtasuna eta osasuna bermatzeko politikak izango ditu, eta beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu istripu-arriskua txikitzeko eta laneko gaixotasunak saihesteko.

Langileek arreta berezia jarriko dute laneko segurtasun eta osasun arauak betetzeko, laneko arriskuak prebenitze eta minimizatze aldera.

Taldearekin elkarlanean ari diren kontratistek ere laneko segurtasun eta osasun politikok eta arauok errespetatu beharko dituzte. Bestalde, Tragsa Taldearen kontratazio organoek onartutako agirietan, kontratistak laneko segurtasuna eta osasun obligazioak errespetatzea ezinbesteko baldintza izango da kontratua egikaritzeko.

15. artikulua. Taldeko langileen hautaketa eta ebaluazioa

Taldeak langileak hautatzen dituenean, datu pertsonalen babesari lotutako printzipioak errespetatuko ditu. Prozeduretan datu akademiko, pertsonal eta profesionalak bakarrik hartuko ditu kontuan, eta soilik Taldearen beharrekin lotuta. Objektibotasunez jokatu du beti hautaketa-prozesuan, publizitate, berdintasun, meritu eta gaitasunaren printzipioak aintzat hartuz.

Taldeak profesionalen ebaluazio zorrotz eta objektiboa egingo du, bai banakako bai taldeko lanari eta langilearen produktibitateari erreparatuz.

16. artikulua. Prestakuntza politikak

Taldeak langileen etengabeko prestakuntza sustatuko du, objektiboki eta enpresaren unean uneko beharren arabera; horrez gain, garapen profesionalaren eta aukera-berdintasunaren alde egingo du beti.

17. artikulua. Partaidetza

Taldeak babesa, laguntza eta langileen partaidetza aktiboa sustatuko ditu ezagutzak partekatzea helburu duten jarduera guztietan.

18. artikulua. Lan-giroa

Langileek elkartasuna eta elkarlana bultzatuko dute enpresaren helburuak lortzen laguntzeko; horretarako, lan-giro positiboa sortu eta zainduko dute.

19. artikulua. Independentzia

Langileak, beren lan-jardunean, inpartzialak izan behar dira, eta loturarik gabeko irizpide propioa izan behar dute; hala, zuzentasunez eta objektibotasunez aritu behar dira.

Bere inpartzialtasuna edo loturarik gabeko irizpide propioa kaltetu dezakeen egoerarik egonez gero, Gobernu, Enpresa Erantzukizun eta Arrisku Penalen Prebentzioko Batzordeari jakinarazi beharko dio, Betetze zuzendariaren bitartez, interes-gatazka konpontzeko neurriak hartze aldera.

20. artikulua. Interes-gatazkak

Interes-gatazka dagoela ulertuko da langilearen interes pertsonala, edo berarekin lotura duen beste pertsona batena, eta Taldeko sozietateren baten interesak aurkakoak direnean, aurkakotasun hori zuzena nahiz zeharkakoa izan.

Erabaki profesionalak Taldearen interesak babesteko hartu behar dira; hortaz, harreman pertsonalek, familia kontuek edo Taldeko profesionalen bestelako interes partikularrek ezin dute eragin erabakietan.

Langileren batek, bere lanaren baitan, negozio-aukera baten berri izan badu, ezin izango du aprobetxatu bere edo ezagun baten onurarako, baldin eta inbertsio edo eragiketa hori Taldeak eskaini badu, edota Taldeak horretan interesa badu.

Interes-gatazka posibleekin lotuta, Taldeko langileek Interes Gatazkei buruzko Politikan ezarritakoa bete behar dute, independentziaren printzipioaren arabera, esku hartu gabe eta pertsona arduradunari zein Gobernu, Enpresa Erantzukizun eta Arrisku Penalen Prebentzioko Batzordeari jakinaraziz, Betetze zuzendariaren bitartez.

21. artikulua. Opari eta gonbidapenei buruzko politika

Taldeko langileek ezin dute inolako prestaziorik onartu, ez zuzenean ez zeharka, baldin eta bere balioagatik adeitasun-keinu bat baino gehiago dela ulertu badaiteke. Zalantzarik egonez gero, langileak Gobernu, Enpresa Erantzukizun eta Arrisku Penalen Prebentzioko Batzordeari galdetu beharko dio, Betetze zuzendariaren bitartez, adeitasun-keinu bat baino gehiago den ala ez erabakitzeko. Horretarako, Taldeak Opari eta Gonbidapenei buruzko Politika prestatu du, erregistro eta baimen sistemak ezartzeko. Politika hori Taldeko langile guztiei helaraziko zaie, eta denek bete behar dute bertan ezarritakoa.

22. artikulua. Ustelkeria eta eroskeria

Taldeko langileek ezin dute, ez zuzenean ez beste inoren bitartez, justifikatuta ez dagoen eta Taldeari, langileari edo hirugarren pertsona bati mesede egiteko helburua duen abantaila edo onurarik eskaini, eman, eskatu edo onartu. Konkretuki, ezin dute eman edo jaso nahasitako beste pertsonaren batek eskainitako eroskeria edo komisiorik, hala nola, funtzionario publikoek (espainiarrak zein atzerrikoak), beste enpresetako langileek, alderdi politikoek, agintariek, herri administrazioek, hornitzaileek edo akziodunek.

Eroskeria berariaz debekatuta dago; horren barruan sartzen dira ere bai abantaila desegokiak eskaintzea edo promes egitea, zuzenean nahiz zeharka, horrelakorik estaltzeko tresnak eta influentzia-trafikoa. Era berean, debekatuta dago norberaren izenean dirua jasotzea herri administrazioen, botere esleitzzaileen, organo agindu emaileen zein hornitzaileen eskutik, mailegu edo aurrerakin bezala ere ez. Hori dena kontuan hartu gabe langileek Taldearen organo agindu emaileak edo hornitzaileak diren finantza-entitateen eskutik jasotako mailegu edo kredituak, betiere arestian aipatutako egoeran ez bada.

Tragsa Taldearentzat, onuraren bat lortzea helburu duen jokabide ez etikoa da ustelkeria. Ustelkeria iruzur mota bat da. Tragsa Taldeko langileek ez dute etikaren kontrako jokabiderik izango enpresatik kanpoko pertsonak konbentzitzen saiatzeko, Taldearentzat edo beren bururentzat saririk lortze aldera. Gainera, erne ibiliko dira, Taldearekin harremana duen beste pertsona edo enpresaren batek horrelako jokabiderik ez izateko. Horretarako, Taldeak Betetzeko eta Eroskeriaren aurkako Politika prestatuko du, halako gaiak arautzeko.

Agintaritzekin eta erakunde publikoekin dituzten harremanetan, Tragsa Taldeko langilek zuzentasunez arituko dira, ustelkeria eta eroskeria saihesteko nazioarteko xedapenekin bat.

Tragsa Taldeak berariaz debekutzen du edozein pertsona edo erakunderi, publiko zein pribatua, kontratutik kanpoko edo legearen kontrako ordainketak egitea haiekin negozioak lortzeko zein mantentzeko, edota bestelako abantailak lortzeko. Era berean, debekatuta dago funtzionario publikoekin duten harremana aprobetxatzea bestelako abantailak izateko.

23. artikulua. Bateriaezintasunen Erregimena

Enpresako langileen jarduera publiko zein pribatuei dagokienez, kontuan hartu behar da bateraezintasunei buruzko araudia. Zehazki, enpresako langileek beste lan batzuk egin ditzakete Administrazio Publikoen Zerbitzuko Enplegatuen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean eta Estatuko Administrazio Orokorreko goikarguan aritzea arautzen duen martxoaren 30eko 3/2015 Legean jasotako baldintzetan; horretarako, beharrezkoa denean, dagokion bateragarritasunaren adierazpena eskatu beharko dute.

IV. kapitulua. Ingurumenaren arloko arauak

24. artikulua. Ingurumenaren babesa

Tragsa Taldearen jarduera guztiek ingurumena zaintzen dute, neurriak hartu baititugu horietan parte hartzen duten eragileek prebentzioz jokatzeko. Hala, enpresaren jarduerak izan dezaketen eragin negatibo posibleak gutxitzen ditugu.

Taldeko enpresek ahaleginak egingo dituzte hondakinak eta kutsadura gutxitzeko, baliabide naturalak babesteko, energia aurrezteko eta ingurumenaren zaintzarekin zerikusia duten ikerketa proiektuak babestu zein bideratzeko. Taldea ingurua, baliabide naturalak eta biodibertsitatea zaintzen eta babesten saiatuko da. Horretarako, gizartearen eta ingurumenaren beharrei erantzungo die, landa- eta itsas-inguruneak garatzen lagunduz, kalitate parametroak etengabe hobetuz eta ingurumenean duen inpaktua txikituz; isurketak saihestuko ditu, eta ez du airera, lurrera zein uretara botako pertsonen bizitza, osotasuna, osasuna zein ondasunak arriskuan jar ditzaketen material edo gaiak.

Tragsa Taldeak baliabide naturalak kontserbatzen saiatuko da, eta ez du jardungo honako hauetan baimenik gabe: bideak, berdeguneak, herri-jabariko ondasunak edo lege zehar administrazio boki paisaia-balio, balio ekologiko, artistiko, historiko edo kulturala aitortuta duten lekuak; eta arrazoi horiengatik bereziki babestu beharrekoak direnean.

Taldea agintaritzekin elkarlanean arituko da ingurumena babestea helburu duten lege eta arauak garatu nahiz sustatzeko. Halaber, Taldeak teknologia aurreratuen erabilera sustatuko du, gutxiago kutsatzen duena, ingurumena babesteko, eta horrelako ekimenetan interesa duten enprekin elkarlanean aritzen saiatuko da.

Taldeak politika hori jakinaraziko die berarekin lanean ari diren entitate, hornitzaile eta kanpoko profesionali, eta politika hori errespetatzeko eskatuko die. Zentzu horretan, Tragsa Taldeak konpromisoa hartzen du urtarrilaren 31ko PCI/86/2019 Aginduan ezarritakoa betetzeko, 2018ko abenduaren 7ko Ministroen Kontseiluaren Akordioa argitaratzen duena, horren bidez, Estatuko Administrazio Orokorraren, bere organismo autonomoen eta Gizarte Segurantzaren erakunde kudeatzaileen Kontratazio Publiko Ekologikorako Plana (2018-2025) onartzen da.

V. kapitulua. Arau ekonomikoak

25. artikulua. Jardueraren garapena

Tragsa Taldea modu eraginkor eta lehiakorrean arituko da, eskura dituen baliabideak optimizatuz; horretarako, enpresa hazi egingo da, baina errentagarri izateari utzi gabe, kudeaketa arduratsuari esker.

Taldearen konpromiso etikoak oinarritzko zenbait printzipio eta estandar ditu enpresaren eta interes-talde nagusien (langileak, administrazioak, botere esleitzzaileak, hornitzaileak, azpikontratatistak, kolaboratzaileak eta akziodunak) artean harreman egokiak bermatzeko. Konpromiso horri lotuta, enpresak helburu hauek hartuko ditu kontuan, besteak beste:

- a) Inbertsio arduratsua gizartearen ikuspuntutik, eta enpresaren errentagarritasun ekonomikoa, agiri honetan finkatutako helburuekin bat.
- b) Gardentasuna enpresaren jardueretan
- c) Gizarte Erantzukizunari buruzko politikaren txostenak, urteko txostenetan gizartearen eta ingurumenaren arloko informazioa txertatuta; gainera, Taldearen Jasangarritasun Txostena argitaratuko du.
- d) Arauak betearazteko eta arrisku penalak saihesteko eredu irmoa ezartzea, enpresa prozedura penaletan ez sartzeko; izan ere, horrek kalte ekonomiko zeni finantzarioak eragin ditzake, eta enpresaren ospea ere kaltetu ahal du.

Tragsa Taldeak, aurretik izandako esperientzia gogoan, bere jardueren kalitatea eta segurtasuna hobetzen saiatuko da, barne eta kanpo auditoretzen bitartez, bere jarduna etengabe hobetzeko.

Tragsa Taldeak ziurtatuko du bere jardunari esker izandako diru-sarrerak aplikagarri zaion araudiaren arabera lortu direla. Hortaz, ez du iruzurrezko ekintzarik onartuko dirulaguntzak eskuratzeko edota funts publikoak (nazionalak zein atzerrikoak) erabiltzeko, inori kalte eginez, ez eta horien helburua ez den beste helbururen baterako erabiltzeko ere.

26. artikulua. Ekonomia eta finantzako informazioaren egiazkotasuna

Tragsa Taldeak bere kontuen egiazkotasuna bermatzen du, eta uko egiten dio horien manipulazio orori, bere ustean kontuek modu fidagarrian islatu behar baitute Taldearen

egoera ekonomikoa. Hori dela eta, eskura dituen tresna guztiak erabiltzen ditu kontuok zuzen interpreta daitezen, eta haiek aztertzen dituen pertsonak gaizki uler ez ditzan.

Ondore horietarako, arlo horretan erantzukizunak dituzten Tragsa Taldeko langileek argi eta zehaztasunez islatuko dituzte transakzioak, eta kontu handiz sartuko dituzte datuak enpresaren sistema informatikoetan, ekonomia eta finantzako informazioa fidagarria dela bermatze aldera.

Halaber, Tragsa Taldeak kontrol mekanismoak ditu enpresa barruan, langileen jokabide desegokiak Taldearen egoera ekonomikoa alda edo hirugarrenek enpresari buruz duten iritzia kaltetu ez dezan. Izan ere, xedapen-egintzak, krisi ekonomikoa edo kaudimengabezia eragin ditzake, eta horrek kalte egingo lieke entitate publiko eskatzaileei, hornitzaileei, hartzekodunei edo langileei.

Horrez gain, aplikagarria den legedia betez, bermatuko da emandako informazio ez-finantzarioa egiazkoa dela.

27. artikulua. Kontabilitate, zerga eta Gizarte Segurantzako obligazioak betetzea

Tragsa Taldeak, bere jarduera guztiak indarrean dagoen legedira egokitzeko, ekonomia eta finantzako informazioaren egiazkotasuna bermatzeko eta Taldeko sozietateen ekarpena — interes komunaren alde— zergen eta gizarte segurantzaren arloko legeetan ezarritakoaren arabera egin dadin, kontabilitate, zerga eta Gizarte Segurantzako obligazioak betetzen ditu, garaiz eta zorroztasunez, eta prozedurak ezarri ditu enpresa barruan, arlo horretako obligazioak betetzea oztopatu dezakeen funtzionamendu desbideratzerik egon ez dadin.

28. artikulua. Kapitalak zuritzea eta irregulartasunak ordainketetan

Tragsa Taldeko langileek arreta berezia jarri behar dute enpresarekin harremana duten pertsona zein entitateek zuzentasunez jokatzeko ez dutela adierazten duten zantzuak daudenean.

Zehazki, arreta berezia jarriko dute, batetik, dirutan egindako ordainketetan, eragiketa mota ikusita ohiz kanpokoak denean; eta bestetik, eramaile-txekeen bidez egindako edo aurrez adostutakoa ez den dibisa batean egindako ordainketetan. Langileek halakorik ikusiz gero, eta susmagarria dela uste badute, Kode Etiko honetan adierazitako kanal eta prozeduren bidez jakinaraziko dute.

Era berean, kontratuetan agertzen ez direnen hirugarrenek egindako ordainketak ere kontrolatuko dituzte, bai eta entitate, enpresa edo pertsona jakin batekin normalean erabiltzen ez diren kontuetara egindakoak ere.

Azkenik, zerga-paradisuetako pertsona, enpresa edo entitateei edo egindako ordainketak kontrolatuko dituzte, bai eta bazkide, jabe edo onuradun nagusia identifikatu ezin den entitateei egindako ordainketak ere.

29. artikulua. Jabetza intelektual eta industrialaren babesa

Tragsa Taldeko langileek konpromisoa hartua dute jabetza intelektual eta industrialaren babesarekin, bai Taldeko sozietateena bai hirugarrenena; hori dela eta, arlo horretako araudia betetzen du zehatz-mehatz, eskubiderik ez urratzeko eta Taldea nahiz hirugarrenak ez kaltetzeko.

VI. kapitulua. Komunikazio estrategikoko arauak

30. artikulua. Kode Etikoaren komunikazioa eta hedapena

Kode Etikoa intranetaren bidez helaraziko zaie enplegatuei eta Taldeko langileei.

Kode Etikoa enpresatik kanpo zabaltzeko, Koordinazio eta Ekintza Instituzionalen Zuzendaritzak Taldearen webgunean argitaratuko du. Hala ere, Zuzendaritza guztiek, bakoitzak bere eskumenen baitan, Kodea are gehiago zabaltzen lagunduko dute.

Urtero, Betetze zuzendariak txosten bat prestatuko du, Kodea zein neurritan bete den aztertzeko. Txostenok Tragsa Taldearen Urteko Jasangarritasun Memorian sartuko dira.

31. artikulua. Kode Etikoa betearaztea

Kode Etiko hau betetzeari dagokionez, Taldeak konpromiso-maila altua eskatuko die langile eta enplegatuei.

Tragsa Taldeak beharrezkoak diren bitartekoak jarriko ditu enplegatu eta langileen esku Kode Etiko honetan jasotako printzipioak betearazteko.

Kode Etikoa errespetatu ezean, aplikagarria den araudiaren arabera ebatziko da arau-hauste hori. Taldeko enplegatuek eta hirugarrenek Kode Etiko honen aurkako jokabiderik hautemanaz gero, isilpean eta fede onez jakinaraziko dute. Horretarako, sozietateak ezarritako komunikazio kanala erabiliko dute; haren bitartez, langileek, enplegatuek eta

hirugarrenek, isilpean, zalantzak kontsultatu eta jokabide desegokiak (penalak zein bestelakoak) jakinaraz ditzakete, Kode Etiko honetan ezarritakoarekin lotuta.

Tragsa Taldeak argi uzten du ez duela inolako errepresaliarik onartuko prozedura horien bitartez jokabide desegokiak (penalak zein bestelakoak) jakinarazi dituzten pertsonen aurka, Kode Etiko honetan ezarritakoarekin lotuta. Gobernu, Enpresa Erantzukizun eta Arrisku Penalen Prebentzioko Batzordeak, Taldeko ordezkariak eta zuzendaritzako organoek bezala, datu pertsonalen babesari buruzko legedian ezarritakoa beteko du Kode Etiko honi lotuta profesionalengandik jasotzen dituzten jakinarazpenetan. Konpromiso hori, zehazki, derrigorrezkoa izango da Tragsa Taldean konfiantzako eta izendapen askeko postuetan aritzen direnentzat.

Langileek Kode Etiko honen interpretazio edo aplikazioarekin zalantzarik badute, Betetze zuzendariarekin jarri behar dira harremanetan, hori baita Gobernu, Enpresa Erantzukizun eta Arrisku Penalen Prebentzioko Batzordeak gaitu duen organoa. Gainera, Batzorde horrek, bere arduradunari edo salaketa kanalaren bitartez, agiri honetan jasotako arauen urraketak jakinarazi behar ditu. Hala, arau-haustea laneko faltatzat hartzen bada, zigorra aplikatuko da, indarrean dauden lan-arauen arabera, eta baliteke bestelako erantzukizunak ere eskatzea.

32. artikulua. Informazio politikak

Tragsa Taldearentzat, Enpresaren Gizarte Erantzukizuneko politika elementu bereizgarria da, enpresa kudeatzeko modu osoagoa; bai eta komunikazio estrategia bat prestatzeko gaitasuna sendotzeko modu bat eta enpresaren izen ona zabaltzeko ahalegin bat ere. Ikuspegi estrategiko global hori aditzera emateko, gobernu onaren jarduerak ezagutaraziko dira, bai enpresa barruan bai kanpoan, Enpresaren Gizarte Erantzukizuneko politikaren bitartez.

Komunikazioa kudeatzeko, zehazki Tragsa Taldeko langileei lotutakoa, plangintza zehatza prestatuko da; horrez gain, publizitate arduratsua egingo da, egun diren kalitate eta ingurumen ziurtagiriak mantentzen saiatuz.

33. artikulua. Kode Etikoa onartzea eta aldatzea

Sozietatearen Administrazio Kontseiluari dagokio Kode Etiko hau onartzea eta aldatzea.

VII. kapitulua. Gobernu, Enpresa Erantzukizun eta Arrisku Penalen Prebentzioko Batzordea

34. artikulua. Gobernu, Enpresa Erantzukizun eta Arrisku Penalen Prebentzioko Batzordea

Barne Araudian eta Administrazio Kontseiluaren Barne Araudian ezarritakoari kalte egin gabe, Gobernu, Enpresa Erantzukizun eta Arrisku Penalen Prebentzioko Batzordearen egitekoak dira, besteak beste:

- a) Kode Etikoa zabaltzea, ezagutaraztea eta betearaztea.
- b) Zalantza dagoen kasuetan, kodea interpretatzea eta erabakiak bideratzea, eta bi alderdik edukiak modu desberdinean interpretatu badituzte, arbitratze lanak egitea.
- c) Zuzendarien, Egiturako Langileen eta gainerako enplegatuen artean komunikazioa erraztea, kodea betetzen eta onartzen denetz jakiteko.
- d) Kode Etikoa zein neurritan betetzen den jakinarazteko txostenak prestatzea, kodearen aplikazioa errazteko gomendio eta proposamenekin.
- e) Postontzi etikoa kudeatzea.

Arestian aipatutako eginkizun guztiak Tragsa Taldeko Betetze zuzendariarekin elkarlanean egingo dira

35. artikulua. Tragsa Taldeko Betetze zuzendaria

Gobernu, Enpresa Erantzukizun eta Arrisku Penalen Prebentzioko Batzordeak Betetze zuzendariaren laguntza izango du aldi oro, eta azken horren egitekoak aipatu batzordearen menpe egongo dira. Hala ere, antolakuntzari dagokionez, Tragsa Taldeko Zuzendaritzari atxikita egongo da zuzenean, Barne Auditoretzako Zuzendaritzaren bitartez. Autonomia eta askatasuna izango du bere lana egiteko, eta araudi propioa izango du. Salaketak ikertzeko, Tragsa Taldeko Betetze zuzendaria Laguntza Unitate batekin elkarlanean aritu ahal izango da. Unitate hori kasu bakoitzerako sortuko da, eta enpresako hiru pertsonak osatuko dute, gai konkretu horretan gaitasuna, ibilbidea, zintzotasuna eta ospea aitortuta dutenak.

36. artikulua. Tragsa Taldeko langileen betebeharrak Kode Etiko honen ez-betetzeei lotuta

Tragsa Taldeko enplegatu eta langile guztiek Gobernu, Enpresa Erantzukizun eta Arrisku Penalen Prebentzioko Batzordeari jakinarazi behar dizkiote Kode Etiko honen kontrako jokabideak, Betetze zuzendariak kudeatutako postontzi etikoaren bitartez (buzonetico@tragsa.es).

Hortaz:

- a) Enplegatuek Gobernu, Enpresa Erantzukizun eta Arrisku Penalen Prebentzioko Batzordeari jakinarazi behar diote, nahitaez, hautematen edo susmatzen duten edozein arau-hauste, bai eta Taldearen Kode Etikoan ezarritakoaren aurkako jokabide oro ere.
- b) Fede onez salaketa egiten duten pertsonak babestuta egongo dira, inolako errepresaliarik egon ez dadin.
- c) Salaketa egiten duen pertsonaren identitatea isilpekoa izango da; era berean, enpresak bere lege-betebeharrak beteko ditu, eta modu bidegabean edo fede txarrez salatuak izan diren enpresa edo pertsonen eskubideak babestuko.
- d) Langileren batek Gobernu, Enpresa Erantzukizun eta Arrisku Penalen Prebentzioko Batzordeari jakinarazten ez badio hautemandako jokabide okerren bat, batzordeak ez-betetze horrek eragindako arriskuaren larritasuna balioetsiko du, eta dagokionari helarazi behar zaion erabakiko, ez-betetzearen ondorioak aztertze aldera.

37. artikulua. Postontzi etikoaren kudeaketa

Gobernu, Enpresa Erantzukizun eta Arrisku Penalen Prebentzioko Batzordea arduratuko da, Betetze zuzendariaren bitartez, postontzi etikoa kudeatzeaz, enpresa barruko ikerketak koordinatzeaz (halakorik dagoenean) eta ikerketaren ondorioen arabera egokitzen jotzen dituen neurriak hartzeaz. Enpresak Jarduteko eta erabakiak hartzeko protokolo bat prestatuko du Tragsa Taldean egon litezkeen arau-hauste kasuetarako; hori izango da postontzi etikoaren bidez jasotako salaketak onartzeko, bideratzeko, ikertzeko eta ebazteko prozedura.

Edonola ere, salaketa-kanalaren edo Gobernu, Enpresa Erantzukizun eta Arrisku Penalen Prebentzioko Batzordearen jardunaren bidez jasotako frogak baliozkotzean, Espainiako legedian aitortutako eskubide eta printzipio konstituzionalak errespetatuko dira, alegia,

benetako babes judizialerako eskubidea, errugabetasun-presuntzioaren printzipioa, prozesuan berme guztiak izateko eskubidea eta datu pertsonalak babesteko eskubidea.

Tragsa Taldearen Kode Etikoaren aldaketa hau Tragsa eta Tragsatec sozietateen Administrazio Kontseiluek onartu zuten Madrilen, 2020ko urtarrilaren 28an.